

# Ageriko bilkura

Zizur Txikian, 2012ko urriaren 5ean

Zizur Txikian, 2012ko urriaren 5ean, arratsaldeko 18:00etan, San Fermin Ikastolako areto nagusian, *Nafarroa Oinez 2012* dela eta, antolatutako ekitaldien barruan, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Andres Iñigo Jagon sailburua, Patxi Salaberri, Patxi Uribarren eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain urgazleak: Mikel Bujanda, Aingeru Epaltza, Paula Kasares, Paskual Rekalde eta Juan Jose Zubiri.

Patxi Juaristi Sustapen batzordeko kidea.

Erramun Osa idazkariordea.

Gema Insausti Euskaltzaindiko langilea.

*Nafarroa Oinez 2012* dela eta, zenbait bilkura egin ditu Euskaltzaindiak egun osoan zehar, Zizur Txikiko San Fermin Ikastolan. Goizean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza bildu da. Zuzendaritzaren bilkurak, eguerdian, etena egin du, ikastolako hainbat gela bisitatzeko eta Ikastolako presidentearen eta zuzendariaren aho-etzpainenatetik dituzten asmoen berri ere izan du. Arratsaldean, berriz, Sustapen batzordea bildu da. Ondoren, Ageriko bilkurari hasiera eman zaio San Fermin areto nagusian.

Bilkurari Javier Barcos San Fermin Ikastolako presidentea eman dio hasiera. Honek, esker ona adierazi die hurreratu diren guzti-guztiei, ikastolaren izenean, bereziki Euskaltzaindia eta Ikastolako hezkuntza-erkidegoa aipatu ditu. Era berean, *Nafarroa Oinez* dela eta, urte osoan zehar eginiko ahalegina ere goraiatu du. On-

doren, San Fermin Ikastolako abesbatzak eta Zangozako Nora abesbatzak elkarrekin hiru kanta abestu dituzte.

Kantuen ondoren, Pilar Vicente ikastolako zuzendariak hartu du hitza. Honek, Euskaltzaindiaren jarduna izan du mintzagai, besteak beste. «Euskal Herriko hainbat tokitan ikastolak martxan jartzen ari zirenean, Euskaltzaindiak garrantzi handiko erabakia hartu zuen: euskara arautu, batu egin zuen», adierazi du zuzendariak. Era berean, Zizur Txikiko ikastola «herritik eta herrirako sorturiko ikastola» bezala definitu du P. Vicentek, eskolaren sorrera gogoratzerakoan. Halaber, bere joera berritzailea ere azpimarratu du, euskal hizkuntzan oinarrituriko ereduagatik, hasieratik mantendutako eredu pedagogiko modernoagatik eta pisu nagusia izan duten guraso kooperatiben sisteman oinarritutako zuzendaritzagatik.

Etorkizunari begira, zuzendariak erronka batzuk aipatu ditu, besteak beste, materialaren nahiz informazio eta komunikazio teknologien sorkuntza, I+G+i proiektuan sakontzea eta hezkuntza gaitasunak definitzea eta lantzea.

Ikastolako zuzendariaren ondoren, Paula Kasares euskaltzain urgazle eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak «Etxea eta ikastola elkarlanean: zeinek zer haurrak euskaldun hazteko bidean» izenburua daraman hitzaldia eskaini du. Hitzaldian zehar, familia eta ikastolaren arteko elkarlanaren garrantzia azpimarratu du. Izan ere, haren hitzetan: «hizkuntza sozializazioaren ikuspegi teorikotik, haurrak euskaldun bilakatzeko prozesuan nekez bereiz daitezke etxea eta eskola, biak batera ari baitira».

Familia eta ikastolaren arteko erlazioaz ez ezik, P. Kasaresek guraso eta ikasleen, eta ikasleek beren artean ezartzen dituzten elkar eraginei erreparatu die, bere iritziz «haurrak euskaldun hazteko prozesua ulertzeko ikusmolde elkar eragilea, dinamikoa eta malgua» behar baita. «Ohiko ikusmolde soziolinguistikoa hizkuntza transmisioaren bidean haurrak goitik beheiti heldu zaien eragin baten hartzaile hutsak ditugu, eta haurren eragintzari gutxitan erreparatu zaio», gaineratu du P. Kasaresek.

Segidan, San Fermin Ikastolako abesbatzak eta Zangozako Nora abesbatzak hiru kanta abestu dituzte elkarrekin, hizkuntza desberdinetan.

Ekitaldia amaitzeko, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du. Euskara-aren Akademiak egunean zehar eginiko lan mardula izan du aipagai. Era berean, ikastolen eta Euskaltzaindiaren arteko harremanez ere hitz egin du. San Fermin ikastolako presidenteari eta zuzendariari berriki argitaraturiko *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* ale bat eman die opari. Liburu honen aurrealdean, ekitaldian egon di-

ren euskaltzain oso guzti-guztiek izenpetu dute. Ikastolako arduradunek hunkiturik eskertu dute euskaltzainburuak emaniko oparia.

A. Urrutiak mintzaldiari amaiera eman dio gurasoek haien seme-alabei euskara transmititzeko erakutsi duten borondatea eskertuz eta, zailtasunak zailtasun, Euskaltzaindia alboan izango dutela azpimarratu du.

Ondoren, ekitaldian egon diren guztiak zutitu dira eta *Agur Jaunak* kantatu dute, bilkurari amaiera emanez iluntzeko 19:30ean.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urtiaga,  
idazkaria